

Antxinako Fotografixia



Gerra aurreko karnabalak

Sarritan entzun izan dogu sasue bateko karnabalak animaziño haundikuak izaten zirala Oñatin be. Bigarren Errepublikaren denporan, esate baterako, jente askok parte hartzen ei eben neguko jai horreittan. orduko libertade-girua aprobetxauaz-edo. Egixa esateko, etxaku garai haretako fotografixa asko geratu; edo guk behintzat ezittitugu eskuratu. Horregatik dakargu gaurku gerra aurreko argazki hau, kalidade aldetik oso ona izan ez arren. Bertan agiri diran *koziñero*, *indixo*, *baserritar*, *emakume*

gizon eta *gizon-emakumiak* be ezтира guretzat ezagunak, baiña baleike baten batek zeintzuk diran jakittia, eta informaziñuaz etorriko ballaku benetan eskertuko geunskio. Zer esanik ez, jakiña, antxiñako karnabaletaiko edo beste fiesta batzuetako fotografixa zaharrak zuzenduko baleusku. Azkenengo urte honeittan gauza ugari agertu da, baiña seguru gagoz, pittin bat saiatu ezkerero, askoz gehixago azalduko dala. Ia, ba, ezkutautako pitxi kurioso horreik danon artian kaleraketan dittugun!

Liburutegiko Aldizkarixan (1974 eta 1979xan) argittaratu gittuan bertso-sorta pare batek Oñatiko *aratisiaki* aspaldikuak dirala erakusten dosku. Bertso batzuk fan dan gizaldixaren akaberan estudiantiak karnabaleta-rako inprimidutako kanta-papel batian agertu ziran, orain dala ehun urte pasatxo, baiña baleike lehenagokuak izatia. Bestiak, barriz, 1928 ingurukuak dittugu, eta mendittik kalera *inauterietara* datozen artzaiñen pasadizuak kontaitten doskue. Lehenengo sortiak zortzi bertso dako eta hamar bigarrenak. Hona hemen bakoitzetik adibide pare bana:

J. E.
Argazkixa Mari Karmen
Alvarezek itxi dosku.

Estudiantienak:

Estudiantina gabe
nola naizu ta zerekin
botikario ta mediku
eskribanuarekin?

Zuk ere gazte koket
bota zazu zerbaitxo
estudiante gaztearekin
nai badezu ezertxo.

Mendittarrenak:

Oñatiko neskatxak
fin eta leyalak,
atozte bada ikustera
menditar artzayak;
zuben modukuentzat
a zer senar-gayak!
eldu, bada, eta artu
utzirikan mañak.

Artzayak izan arren,
ez da kaletarrik
alaitasuna jartzen
gu berdintzekorik;
Oñati'n ez da izango
gaur ere kalerik,
alaitasuna nunbait
izango ez dunik.



ARKAUZ
OPTIKA

Optiko-Optometrista

Lazarraga, . Oñati Tfnoa: 71 60 63

Maibi
Etxeke Eungintza

Mendiko Kalea, 2 • Oñati • Tfnoa: 78 14 80